



monografikoa

ikusizko arteak eta
arte plastikoak



EUSKADIKO AUTONOMIA
ERKIDEGOKO ARTE PLASTIKO
ETA IKUSIZKO ARTEEI BURUZKO
AZTERLANA
(LABURPENA)

AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENA	1
FITXA SINOPTIKOA	2
I. HELBURUAK	4
II. EGITURA ETA METODOLOGIA	5
III. EDUKI NAGUSIAK	7
1. Jarduera artistikoaren bilakaera eta euskal artisten sustapena	7
1.1. Arte galeriak	7
1.2. Erakusketa aretoak	10
1.3. Museoak	12
1.4. Ekoizpenerako eta sorkuntzarako eremuak	14
2. Euskal erakundeek sektorean izandako esku-hartzearen bilakaera	14
2.1. Eusko Jaurlaritzaren arau-arloko jarduera	15
2.2. EAEko Foru aldundien arau-arloko jarduera	15
3. Gai kritikoen diagnostikoa	16
4. Etorkizunean esku-hartzeko ildoak	22

AURKEZPENA

Jarraian aurkezten den dokumentuak 2005eko irailean Deustuko Unibertsitateko Aisiazko Ikaskuntzen Institutuak burututako *Euskadiko Autonomia Erkidegoko arte plastikoei eta ikusizko artei buruzko azterlana*. EAEko arte plastikoaren eta ikusizko arteen sektoreko jardueraren bilakaera eta euskal erakundearen esku-hartzea lanaren laburpen sintetikoa jasotzen du.

Azterlan hau Euskadi mailan burutu den era honetako lehenengoa da eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Kulturaren Euskal Planaren esparruan sustatutako sektoreko ikerketen testuinguruan kokatzen da.

Dokumentu osoa Lakuako Kulturaren Euskal Behatokiko bulegoan kontsultatu eta ondoko helbidean eska daiteke: kulturabehatokia@ej-gv.es

FITXA SINOPTIKOA (I)

DESKRIBAPENA	
Azterlanaren izenburua	Euskadiko Autonomia Erkidegoko arte plastikoei eta ikusizko arteei buruzko azterlana
Burutu duen erakundea	Deustuko Unibertsitateko Aisialako Ikaskuntzen Institutua
Orrialde kopurua	303
Burutu zen urtea	2005
Inplikaturako sektorea(k)	Arte plastikoak eta ikusizko arteak
Aurrekariak	Kulturaren Euskal Planaren barnean jasotako ekintza
Helburuak	Azterlanaren helburua arte plastiko eta ikusizko arteak sortzeko eta zabaltzeko eta beren sortzaileak sustatzeko garatutako jarduera ezagutzea da, baita duten zuzkidura ekonomikoa ere, gai kritikoen diagnostikotik abiatuz sektorearentzako etorkizunerako ildo batzuk diseinatu ahal izateko
METODOLOGIA	
Ikerketa-metodologia	<p>Kuantitatiboa: EAEko hiru hiriburuetakoko arte plastiko eta ikusizko arteen sektorearen barruan (arte modernoa eta garaikidea) identifikaturako eragile/ekipamendu guztiei galdera-sorta bat zuzendu zaie. 2002, 2003 eta 2004. urteetako eragileen jarduera datuak jasotzen ditu</p> <p>Kualitatiboa: euskal erakundeek sektorean duten esku-hartze zuzenaren azterketa egiten da, bere araudia aztertuz. Bestalde, elkarrizketa sakonak ere burutu dira eta horien bitartez sektoreko hamasei eragile eta pertsona ezagunen banakako iritzi eta ikuspegiek protagonismoa hartzen dute</p>
Parte-hartzea	Inkestan, 39 eragiletatik galerien %83k, erakusketa-aretoen %91k, sorkuntzarako eta ekoizpenerako eremuen %80k eta museoen %100ak hartu dute parte. 16 elkarrizketa sakon egin dira: kritikari 1, 3 artista, 2 galerista, komisario 1, 7 kudeatzaile, 2 politikari
Informazioaren ezaugarriak	<p>Adierazleak: 33 arte-galerienak, 37 erakusketa-aretoenak, 57 museoenak, sorkuntzarako eta ekoizpenerako eremuenak 30</p> <p>Informazioa sailkatzeko kategoriak: Azterlanaren aldagaiak honakoak dira: erakusketa-jarduera, sorkuntza eta ekoizpena, azoketan parte hartzea, fondoak eta erosketak, komisarioak, katalogoen argitalpena, artistak eta aurrekontua eta finantzaketa. Aldagai horiek tipologia bakoitzerako aztertzen dira (arte-galeriak, erakusketa-aretoak, museoak, sorkuntzarako eta ekoizpenerako eremuak)</p> <p>Datu-motak: Zentsukoak</p> <p>Informazio iturri nagusiak: Inkesta eta araudiaren azterketa</p>

FITXA SINOPTIKOA (II)

EDUKI NAGUSIAK	
Egitura	<p>Azterlana hiru kapitulutan egituratzen da, eta horiek osatzeko alderdi metodologikoei buruzko beste bat dauka:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Sektoreko jardueraren bilakaerari buruzko azterlana (arte-galeriak, erakusketa-aretoak, museoak, sorkuntzarako eta ekoizpenerako eremuak eta euskal artisten sustapena). 2. Euskal erakundeek arte plastikoetan eta ikusizko arteetan duten esku-hartzearen bilakaerari buruzko azterlana. 3.- Gai kritikoen diagnostikoa eta etorkizunerako ildoak.
Ikuspegia	<p>Informazioaren analisia: : Azterlanaren zati handi bat inkestak emandako informazioaren analisisian datza. Euskal erakundeek sektorean duten esku-hartzearen bilakaera ere aztertzen da.</p> <p>Diagnostikoa: Hiru ikuspuntutatik burutzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikuspegi orokorrak, sektorearen iragana, oraina eta etorkizuna; Kulturaren Euskal Planaren ekarpenak eta; kulturaren de-sertifikazioa internazionalizazioaren aurrean aztertzen ditu. • Balio-katean oinarrituta prestakuntza / ikerketa; sorkuntza / ekoizpena; zabalkundea / erakusketa; eta kontsumoa aztertzen dira. • Esku-hartze publikoari dagokionez, ildo nagusiak; aurrekontu-zuzkidura; plangintza eta koordinazioa; eskumenak; diru-laguntzak, beka eta laguntzak; eta jarduera eta galeria-sareei babesa aztertzen dira. <p>Jarduera-ildoak: Hausnarketa estrategikoaren edukia hiru ardatz nagusiren arabera antolatu da, bere helburu eta jarduera-ildoekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1.A: Arte plastikoaren sektorean euskal erakundeek esku-hartzea optimizatuko duen eskumen-egitura finkatzea • 2.A: Arteen balio-katearen fase guztiak aintzat hartzen dituen esku-hartze hausnartu eta planifikatua sortzea • 3.A: Euskal artista eta sortzaileei erakundeek babesa emateko politika koordinatua diseinatzea
Baliabide bibliografikoak/ webgrafikoak	Aztertu diren dokumentuen zerrenda aurkezten duen atal espezifiko bat dago (296, 297. orrialdeetan)
EMAITZEN ZABALKUNDEA	
Emaitzak jakinarazteko eta argitarazteko sistema/prozesua	Dokumentu osoa Lakuako Kulturaren Euskal Behatokiko bulegoetan kontsultatu eta ondoko helbidean eska daiteke: kulturabehatokia@ej-gv.es

I. HELBURUAK

Azterlanaren helburu nagusia arte plastiko eta ikusizkoak sortzeko eta zabaltzeko eta beren sortzaileak sustatzeko garatutako jarduera ezagutzea da, baita duten zuzkidura ekonomikoa ere, gai kritikoen diagnostikotik abiatuz sektorearentzako etorkizunerako ildo batzuk diseinatu ahal izateko.

Horretarako, batetik, 2002, 2003 eta 2004. urteetan EAEko hiru hiriburu-eremuko artelan garaikideen eta sorkuntza artistikoaren erakusketan espezializatutako espazioen azterlanean zehaztutako jarduera artistikoa (museoak, galeriak, erakusketa-aretoak eta ekoizpenerako eta sorkuntzarako eremuak) aztertu dira.

Eta bestetik, 1984-2004 aldirian arte plastiko eta ikusizkoen esparruan euskal erakundeek izandako esku-hartzearen bilakaera ere aztertu da, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru Foru aldundiek emandako zuzkidurei arreta eskainiz.

Azterlanaren helburu nagusia arte plastiko eta ikusizkoak sortzeko eta zabaltzeko eta beren sortzaileak sustatzeko garatutako jarduera ezagutzea da, baita duten zuzkidura ekonomikoa ere, gai kritikoen diagnostikotik abiatuz sektorearentzako etorkizunerako ildo batzuk diseinatu ahal izateko

II. EGITURA ETA METODOLOGIA

Ikerketa, jarduera artistikoaren (sorkuntza, ekoizpena eta zabalkundea) eta euskal artisten sustapenaren azterlan deskribatzaile bat da, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartzen dituena. Azterketa honako kapituluaren arabera egituratzen da.

1. Kapitulumua. Sektoreko jardueraren bilakaera (arte-galeriak, erakusketa-aretoak, museoak eta sorkuntzarako eta ekoizpenerako eremuak). Informazio hau jasotzeko EAEko hiru hiriburuetakoko arte plastikoen eta ikusizko arteen sektorearen barruan identifikatutako eragile/ekipamendu guztiei (arte modernoa eta garaikidea) galdera-sorta bat zuzendu zaie. Galdera-sortak 2002, 2003 eta 2004. urteetan izandako jardueraren datuak biltzen ditu, aldi horretan euskal artistek izandako sustapenari arreta berezia eskainiz.

EAEko hiru hiriburuetan kokatutako arte-galeriak (18tik 15ek erantzun dute), erakusketa-aretoak (11tik 10ek), museoak (5etik 5ek) eta arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpenerako eta sorkuntzarako eremuak (5etik 4k) aztertu dira. Arte moderno eta garaikidean espezializatutako erakundeak dira eta euren jarduera nagusiki arte plastikoen eta ikusizko arteen sorrera eta sustapena eta artistak eta beren sorkuntzak bultzatzean datza. Erantzun kopuruak ekipamenduen %88ri buruzko informazioa eskaintzen du.

2. Kapitulumua. Euskal erakundeek arte plastikoetan eta ikusizko arteetan duten esku-hartzearen bilakaera. Bigarren zati honetan ikuspegi kualitatibo bat erabili da, euskal erakundeek (Eusko Jaurlaritza eta Foru aldundiak) arte plastikoen eta ikusizko arteen esparruan azken hogeitun urteotan izandako esku-hartze zuzena aztertzeko. Horretarako edukia analizatzeko gidoi bat erabili da, sektore hau era espezifikoan arautzen duen edo arautu duen arau-katalogoaren bilketa sistematikoa errazten duena. Honakoak dira aztertutako aldiak:

- Eusko Jaurlaritza. 1984-2004
- Foru aldundiak: 1994-2004

Kapitulua lau zati bereizi ditu, aipatutako erakunde bakoitzeko bana; horietan guztietan sektore honi dagokionez Eusko Jaurlaritzak eta Foru aldundiek jarraitutako kultura-politikaren bereizgarri diren esku-hartze nagusien analisi deskribatzaile bat burutzen da, sortutako arau-arloko jardueraren bitartez. Azterlanaren eranskinean, aztertutako araudi guztien laburpen bat aurkezten da.

Ikerketa, jarduera artistikoaren (sorkuntza, ekoizpena eta zabalkundea) eta euskal artisten sustapenaren azterlan deskribatzaile bat da, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartzen dituena

3. Kapitulumua. Gai kritikoaren diagnostikoa eta etorkizunerako ildoak. Diagnostikoa hiru iturritatik abiatuz eratu da: eragile nagusien jardueraren analisia (I. kapitulumua); Eusko Jaurlaritzak eta Foru aldundiek azken hogeitau hamabost urteotan, hurrenez hurren, sortutako araudiaren (II. kapitulumua) eta Kulturaren Euskal Planak ezarritako lehentasunen irakurketa; eta hirugarren, elkarrizketa sakonak, horien bitartez sektoreko hamasei eragile eta pertsona ezagunen (ikertzaile, artista, galerista, komisario, kudeatzaile eta politikoak) iritzi eta ikuspuntuei protagonismoa ematen zaie. Azkenik, esparru nazionalean nahiz nazioartekoan sektore honen egoera eta bilakaerarekin lotutako hainbat txosten, argitalpen, azterlan eta informazio analizatu dira, erreferentziatzeko parametroak ezartzeko helburuarekin.

Diagnostikoa hiru ikuspuntutatik burutzen da eta beti eremu bakoitzaren puntu sendoak eta ahulak emanez:

- 1. Ikuspegi orokorra,** sektorearen iragana, oraina eta etorkizuna; Kulturaren Euskal Planaren ekarpenak sektorean eta; kulturaren desertifikazioa internazionalizazioaren aurrean aztertzen ditu.
- 2. Balio-katean** oinarrituta prestakuntza/ikerketa, sorkuntza/ekoizpena, zabalkundea/erakusketa, eta kontsumoa aztertzen dira.
- 3. Esku-hartze publikoari** dagokionez, ildo nagusiak; aurrekontu-zuzkidura; plangintza eta koordinazioa; eskumenak; diru-laguntzak, beka eta laguntzak; eta jarduera eta galeria-sareei babesa aztertzen dira.

Puntu kritiko horietatik abiatuz hausnarketa estrategikoa burutzen da. Hausnarketa zuzentzen duten eta ekarpenak hurrengo mailetan zehaztea iragartzen duten **hiru ardatz estrategiko** formulatu dira. Ardatz estrategiko bakoitzari, ardatz bakoitzarekin lotutako **helburu** bat edo batzuk dagozkie eta azkenik, helburu bakoitza **ekintza-ildo** batzuetan zehazten da.

4. Kapitulumua. Metodologia. Gainera, ikerketak eranskin batzuk ditu, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru aldundien araudien zerrenda, taula eta grafikoaren aurkibidea, parte-hartzaileen zerrenda eta kontsultatutako erreferentzia bibliografikoak nahiz webgrafikoak jasotzen dituztenak.

Diagnostikoa hiru iturritatik abiatuz eratu da:

- Eragile nagusien jardueraren analisia
- Eusko Jaurlaritzak eta Foru aldundiek azken hogeitau hamabost urteotan, hurrenez hurren, sortutako araudiaren eta Kulturaren Euskal Planak ezarritako lehentasunen irakurketa
- Elkarrizketa sakonak, horien bitartez sektoreko hamasei eragile eta pertsona ezagunen iritzi eta ikuspuntuei protagonismoa ematen zaie

III. EDUKI NAGUSIAK

1. JARDUERA ARTISTIKOAREN BILAKAERA ETA EUSKAL ARTISTEN SUSTAPENA

Lehenengo kapituluak, jarduera artistikoaren bilakaera eta euskal artisten sustapena jorratzen duenak, EAEko hiru hiriburuetan kokatutako eta arte modernoan eta garaikidean espezializatutako arte-galeriek, erakusketa-aretoek, museoek, arte plastiko eta ikusizko arteen ekoizpenerako eta sorkuntzarako eremuak hiru urtetan (2002-2004) garatutako jarduera aurkezten du. Jarduera hori, nagusiki, arte plastiko eta ikusizko arteen sorrera eta sustapena eta artistak eta beren sorkuntzak bultzatzean datza.

Edukia bost atal handitan egituratzen da, lehenengo lauek eragile mota bakoitzaren deskribapena egiten dute. Kapituluak amaitzeko, adierazle nagusien laburpen bat egiten da, sektorearen ikuspegi orokor bat eskaintzeko.

Edukiaren laburpenarekin hasi aurretik, erakusketa eremu hauek hiru hiriburuaren artean nola banatzen diren aztertuko da.

ARTE GALERIA, ERAKUSKETA ARETO, EKOIZPENERAKO ETA SORKUNTZARAKO EREMU ETA MUSEO KOPURUA, EUSKAL HIRIBURUETAN 2004EAN

Hiriburuak	Arte galeriak	Erakusketa aretoak	Ekoizpenerako eta sorkuntzarako eremuak	Museoak	Guztira	%
Bilbao	9	4	4	2	19	48,7
Donostia	6	3	1	1	11	28,2
Gasteiz	3	4	-	2	9	23,1
Total	18	11	5	5	39	100%

Iturria: "Euskadiko Autonomia Erkidegoko Arte Plastikoei eta Ikusizko arteei buruzko azterlanak, 2005 " azterlanean oinarrituz landua. Plan Vasco de la Cultura-Kulturaren Euskal Plana

1.1. Arte galeriak¹

Hiriburu bakoitzean kokatutako galerien kopurua proportzionala da, biztanleen eta jarduera ekonomikoaren mailak kontuan hartuta (%50 Bilbaon, %33,3 Donostian eta %16,6 Gasteizen). Ia-ia proportzio berean, banakako enpresariak eta merkataritza-sozietateak dira galeriek erabilitako formula juridiko nagusiak.

1, Arte-galerietako datu estatistikoak lortzeko, hiru euskal hiriburuetan jendearentzat zabalik dauden establezimendu pribatuak hartu dira kontuan, beti ere euren jarduera nagusia arte-lanen erakusketa eta merkataritza bada eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, arte plastiko eta ikusizko arteen sorrera eta sustapena bultzatu eta artistak nahiz euren sorkuntza suspertzen badituzte.

Hiriburu bakoitzean kokatutako galerien kopurua proportzionala da, biztanleen eta jarduera ekonomikoaren mailak kontuan hartuta: %50 Bilbaon, %33,3 Donostian eta %16,6 Gasteizen

Arte-galerien erdiak Euskadiko Arte Garaikideko Galerien Elkartekoak (AGACEkoak) eta Espainiako Arte Galerien Elkartearen Batasunekoak (UAGAEkoak) dira.

Galerien %77k web orria daukate, %38,4k bisita birtuala egiteko aukera eskaintzen dute; eta %61,5ek fondo-etarako sarbidea daukate.

Galerien %80 Munduko II. Gerratik gaur egunera arte doan garai artistikoan espezializatuta daude. Gainerako %20k, ostera, garai artistiko guztiekin lan egiten dutela egiaztatzen dute.

Aztergai diren hiru urteetan, aldi baterako erakusketen urteko kopurua egonkorra izan da, aldaketa handirik gabea. Euskal galeriek egindako aldi baterako erakusketen batezbestekoa estatu espainoleko galerien erakusketen batezbestekoa baino puntu bat beherago dago, Kultura Ministerioak 2002. urtean emandako datuen arabera. Urte bakoitzean, galerien %70ek 6-10 erakusketa egin dituztenez, batezbestekoa galeriako 8,3 erakusketakoa izan da 2002. eta 2003. urteetan. 2004an, aldiz, batezbesteko hau jaitsi egin da (7,8).

Galeria guztiek egiaztatu egiten dute azken hiru urteotan batez beste 4,4 erakusketa egin dituztela euskal artistekin. Taldekakoen aldean, argi eta garbi dago euskal artistekin egindako banan-banako erakusketak direla nagusi. Erakusketa hauen batez besteko iraupena 6 hilabete ingurukoa izan da. 2002. urtean, guztira, 42 euskal artistek euren lanak jarri dituzte ikusgai aztertutako galerietan; 2003. urtean, 32k; eta 2004an, 37k. Horrenbestez, hiru urteotan, 98 euskal artistek behin behintzat jarri dituzte ikusgai euren lanak.

Erakusgai jarritako lanen lengoia artistikoari dagokionez, pintura da nagusi. Izan ere, ia-ia galeria guztietan jarri dute ikusgai. Ondoren, eskultura, argazkilaritza eta instalazioak datoz.

Prensa autonomikoa eta web orria dira euren jarduera zabaltzeko ohiko bideak galerien %85entzat. Galerien %77k prentsa espezializatua, tokian tokiko prentsa eta posta elektronikoa erabiltzen dituzte. Azkenik, galerien %70ek agenda kulturalen bitartez ematen dute euren jardueraren berri.

Aztertutako galerien %18k baino ez dute baieztatu komisarioak izan dituztela, 2002-2004ko zenbait erakusketa diseinatzeke orduan.

Galerien erdiek euren jarduerak ezagutarazteko katalogoren bat egin dute hiru urteotan. 2002-2003an argitaratutako katalogo kopuruak zertxobait gora egin du, 23 argitalpenetatik 26 argitalpenetara igo da-eta. Galeriek egindako batezbesteko katalogo kopurua 4koa da urteko zein galeriako.

Argitalpenen hizkuntzak kontuan hartuta, nabarmendu egin behar da 2002. urtean azterketan parte hartu duten galerietako batek ere ez zuela euskarazko katalogorik argitaratu; 2003. urtean, bik baino ez; eta 2004. ur-

2002. urtean, guztira, 42 euskal artistek euren lanak jarri dituzte ikusgai aztertutako galerietan; 2003. urtean, 32k; eta 2004an, 37k. Horrenbestez, hiru urteotan, 98 euskal artistek behin behintzat jarri dituzte ikusgai euren lanak

tean, batek baino ez. Galeria gehiago daude katalogoak oso-osorik edo zatika ingelesez egiten dituztenak katalogoak euskaraz argitaratzen dituztenak baino.

Egiaztatu egin daiteke galerien %40k, gutxienez, eskusibako artistak dituztela edo izan dituztela aztertzen ari garen sasoian. Datuok eman dituzten galeria guztiek egiaztatu egiten dute horrelako kontratuzko harremanak izan dituztela 11 eta 15 urte artean, batez beste. Galeria eta artisten arteko kontratuzko harreman-formularik ohikoena salmenten gaineko ehunekoa da (kasuen %90).

Galerien %40k egiaztatu egiten dute 2002–2004an lanen bat ekoitzi dutela, eta horrelako galeria guztiek euskal artisten lan bat ekoitzi dute, gutxienez.

Aztertutako aldiaren, galerien %54 nazioarteko azoketara hurbildu ziren urtero. Urteen arabera, 2002. urtean galeria gehiago mugitu baziren ere, azoken kopurua txikiagoa izan zen. 2003an eta 2004an, oster, galeria gutxiago hurbildu ziren, baina azoka gehiagotara joan ziren. Galeria bakoitza batez beste 2–3 azoketara joaten da urtero. Euskal galeria gehien erakartzen dituzten azokak, garrantziaren arabera ordenatuta, hauek dira:

- ARCO (Madril)
- Art Cologne (Colonia)
- FIAC (Paris)

Dena den, esan beharra dago galeria hauek Europan zein Amerikan egiten diren azoketara joaten direla.

Nazioarteko azoketara hurbiltzen diren galeria gehienak euskal artisten sormen-lanekin joaten dira. Urtero 25 euskal artista ingururen sormen-lanak izaten dira ikusgai azoka hauetan. Aztertzen ari garen hiru urteotan gutxi gorabehera berrogei artista ezberdinen lanak jarri dira ikusgai. Margolanak, argazkia eta eskultura izan dira nagusi.

Galerien %90ek egiaztatu egiten dute euren fondoak dituztela. Guzti-guztiek gainera euskal artisten lanak dituzte euren fondoetan. Galeria bakoitzeko lanen batezbestekoa 131koa da, nahiz eta alde handiak dauden:

- %28ak 50 sormen-lan baino gutxiago dituzte
- Portzentaia bera osatzen dute, 200 sormen-lan baino gehiago dituzten galeriek

Datu horiek eman dituzten zazpi galerien artean daude banatuta 120 bat euskal artistaren lanak. Arte-galerien %70ek 2002tik 2004ra lanen bat eskuratu dute, hauetariko batzuk euskal artistenak.

Aztertutako aldiaren, galerien %54 nazioarteko azoketara hurbildu ziren urtero. Urteen arabera, 2002. urtean galeria gehiago mugitu baziren ere, azoken kopurua txikiagoa izan zen. 2003an eta 2004an, oster, galeria gutxiago hurbildu ziren, baina azoka gehiagotara joan ziren

Amaitzeko, galeriek kontratatutako kanpoko zerbitzuen artean garbiketa da gehien kontratatzen dutena (kasuen %77a), eta ondoren zabalkundea, kudeaketa, artapena eta segurtasuna.

1.2. Erakusketa aretoak²

Hamaika dira hiru euskal hiriburuetan kokatutako erakusketa-aretoak eta ia homogeneouski banatzen dira.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru aldundiek arte plastikoetan eta ikusizko arteetan espezializatutako erakusketa areto bana daukate (Rekalde aretoa eta Koldo Mitxelena). Vitoria-Gasteizen, ez dago titularitate publikoko aretorik (identifikatutako hirurak Vital Kutxakoak dira). Honako areto hauek osatzen dute mapa: Bilbaoko hiru areto (bat BBVArena eta beste bi BBKrenak) eta Donostiako bik (Kutxarenak).

Titularitate publikoko erakusketa-areto guztiek web orria dute eta bisita birtualak egiteko aukera eskaintzen dute euren erakusketa-eremuetan. Zerbitzu eta euskarri teknologiko hauek ez dira hain ohikoak areto pribatuetan.

Areto publikoak Munduko II. Gerratik gaur egunera arte doan garai artistikoan espezializatuta daude. Irabazi-asmorik gabeko areto pribatuen kasuan, XIX. mendeko bigarren zatitik Munduko II. Gerrara arte doan garai artistikoan espezializatuta daude.

Aldi baterako erakusketen urteko kopuruak gorabeherak izan ditu azterturiko aldian:

- **2002. urtean**, 78 erakusketa egin zituzten ekipamendu kulturalotan. Erakusketen batezbestekoa 7,8koa izan zen.
- **2003. urtean**, 62 erakusketa egin zituzten eta batezbestekoa 6,2koa izan zen.
- Urte emankorrena **2004a** izan zen, 97 erakusketa egin baitziren, batezbestekoa 9,7raino igoaz.

Azterketan parte hartu duten aretoek hiru urteotan bi erakusketa baino gehiago egin dituzte euskal artistekin. Zazpi aretoek emandako datuen arabera, 113 artistak hartu zuten parte 2004ko erakusketetan, aurreko bi urteekin alderatuz zenbateko hau igo egin da gainera (74 2002an eta 97 2003an). Taldekakoen aldean, argi eta garbi dago euskal artistekin egindako banan-banako erakusketak direla nagusi. Erakusketa hauen batez besteko iraupena hiru hilabete ingurukoa izan da urte bakoitzean.

2. Hiru euskal hiriburuetan jendearentzat zabalik dauden establezimendu pribatuak eta publikoak aztertzen dira, beti ere euren jarduera nagusia arte plastiko eta ikusizko arteen erakusketa bada eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, artearen sorrera eta sustapena bultzatu eta artistak nahiz euren sorkuntza suspertzen badituzte.

Titularitate publikoko erakusketa-areto guztiek web orria dute eta bisita birtualak egiteko aukera eskaintzen dute euren erakusketa-eremuetan. Zerbitzu eta euskarri teknologiko hauek ez dira hain ohikoak areto pribatuetan

Erakusgai jarritako lanen lengoia artistikoari dagokionez, pintura da nagusi, ondoren, eskultura -aldaketak izan ditu aztertutako urteetan zehar- eta argazkilaritza -%20 egin du gora 2002 eta 2004. urteen artean-.

Erakusketa aretoek gehien erabiltzen dituzten zabalkunde-bideak prentsa autonomikoa, informazio-liburuxkak eta zenbait agenda kultural dira (aretoen %89rentzat). Aretoen %78k prentsa espezializatua erabiltzen dute.

Galde-sortari erantzun dioten erakusketa-areto guztiek egiaztatu dute komisarioak izan dituztela erakusketaren bat diseinatzeko orduan. 2004an, komisarioen partaidetzapeko erakusketen kopuruaren gorakada handia izan da, aurreko bi urteen aldean, 14tik 20 erakusketara igo da-eta. Areto bakar batek baino ez du bertako komisarioa eduki.

Erakusketa-areto guztiek euren erakusketetako katalogoren bat egin dute (urteko 20 argitalpen inguru). Batezbesteko katalogo kopurua bikoa da aretoko eta urteko. Argitalpenen hizkuntzak kontuan hartuta, areto guztiek euskarazko katalogoak argitaratu dituzte hiru urteotan. Hala ere, katalogo guztiak ez dira elebidunak izan. Hiru aretok frantseseko katalogoak egin dituzte 2002. urtean eta 2003. urtean.

Erakusketa-aretoen erdiek euren fondoak dituzte. Guzti-guztiek euskal artisten lanak dituzte fondo horietan. Aretoen %20k baino ez dute 2002tik 2004ra lanen bat eskuratu, baina guztiek euskal artisten lanak dituzte eskuratutako lanen artean.

Aurrekontuei eta mozkin-marjinari dagokionez, alde handiak daude erakusketa-aretoen artean, aretoek eurek emandako datuak kontuan hartuta. Ia-ia areto guztietan, gastu arruntak pixkanaka baina zertxobait igo egiten dira azken hiru urteotan. Urtez urteko azterketak hori erakusten du:

- **2002. urtean**, aretoen %17ren gastu arrunta 100.000 eurotik beherakoa izan da; %50ena, 100.000 - 500.000 euro artekoa; eta gainerako %33rena, 500.000 - 800.000 euro artekoa.
- **2003an**, aretoen %33ren gastu arrunta 100.000 eurotik beherakoa izan da; %17rena, 100.000 - 500.000 euro artekoa; eta gainerako %50ena, 500.000 - 800.000 euro artekoa.
- **2004ko** ehunekoak 2003koen antzekoak izan dira.

Erakusketa-aretoek izandako gastuak oso antzekoak izan dira aztertutako garaian.

Aretoen %89k kontratatzen ditu kanpoko zerbitzuak, eta garbiketa, segurtasuna eta aretoko zaintza dira gehien kontratatzen dituzten zerbitzuak.

Erakusketa-aretoen erdiek euren fondoak dituzte. Guzti-guztiek euskal artisten lanak dituzte fondo horietan. Aretoen %20k baino ez dute 2002tik 2004ra lanen bat eskuratu, baina guztiek euskal artisten lanak dituzte eskuratutako lanen artean.

1.3. Museoak³

Bost dira guztira hiru hiriburuetan dauden arte moderno eta garaikideko museoak, bina Bilbaon eta Donostian eta bat Vitoria-Gasteizen.

Museorik gehienek dute web orria, baina %25ek baino ez dute eskaintzen bisita birtualak egiteko eta fondoetan sartzeko aukera. Dena den, alderdi horri dagokionez EAE estatuko batezbestekoaren gainera dago.

Museoen %60 hainbat garai artistikotan espezializatuta daude, hau da, XII. mendetik XXI. mendera arte. Hala ere, zenbait museo XIX. mendeko bigarren zatitik Munduko II. Gerrara doan garaian eta Munduko II. Gerratik XXI. mendera arte doan garaian espezializatuta daude. Museo guztiek dituzte euskal artistentzako areto bereziak.

Erakusketa iraunkorren kopurua ez da asko aldatu aztertzen ari garen aldian. Azterketaren emaitzak honela laburbildu daitezke:

- Museoen %80k 1-3 erakusketa antolatzen dituzte urteko.
- 2002. urtean euskal museo guztiek aldi baterako erakusketak egin zituzten. Estatu espainoleko museoen %36ak soilik antolatu zituen aldi baterako erakusketak.
- 2004. urtean, museoen %60k 4-6 erakusketa antolatu zituzten. Museo bakoitzak egiten duen batezbesteko erakusketa kopurua 5,2koa da (aurreko urteetako baino zertxobait baxuagoa, 7 erakusketa urteko).
- Euskal artistek egindako erakusketak kontuan hartzen badira batezbesteko hau 1,4raino jaisten da, 2003ko datuekin alderatuz, izandako jaitsiera handia da (4,2 erakusketa urteko).
- Museoek emandako datuen arabera, erakusketetako euskal artisten kopuruak gorabeherak izan ditu hiru urteotan. Izan ere, 2002an, 7 artista ziren; 2003an, 15 artista; eta 2004an, 12 artista. Taldekakoen aldean, euskal artistekin egindako banan-banako erakusketak izan dira nagusi. Erakusketen batez besteko iraupena 9 hilabetekoa izan zen 2002an; 11 hilabetekoa, 2003an; eta 4 hilabetekoa, 2004an.

Erakusgai jarritako lanen lengoia artistikoari dagokionez, pintura, marrazkia, eta eskultura dira nagusi.

3. Hiru euskal hiriburuetan arte modernoan eta/edo garaikidean espezializatuta dauden establezimendu publikoak edo sektore publikoaren partaidetzapeko establezimenduak aztertzen dira, beti ere euren jarduera nagusia arte-lanen erakusketa bada eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, artearen sorrera eta sustapena bultzatu eta artistak nahiz euren sorkuntza suspertzen badituzte.

Erakusketetako euskal artisten kopuruak gorabeherak izan ditu hiru urteotan. Izan ere, 2002an, 7 artista ziren; 2003an, 15 artista; eta 2004an, 12 artista

Honako hauek dira gehien erabilitako zabalkunderako bideak: prentsa espezializatu autonomikoa eta tokian tokikoa, tokian tokiko telebista, irrati autonomikoa eta tokian tokikoa, kaleko publizitatea, informazio-liburuxkak eta posta elektronikoa.

Museo guztiek egiztatu dute komisarioak izan dituztela erakusketa batzuk diseinatzeko orduan. Komisarioen partaidetzapeko erakusketen kopurua handituz joan da aztertzen ari garen aldian: 2002ko 9 erakusketatik 2004ko 11 erakusketara igo da. Bertakoen aldean, kanpoko komisario gehiago kontratatu dira.

Museo guztiek euren erakusketetako katalogoren bat egin dute hiru urteotan. Argitaratutako katalogoen kopuruak gora egin du erabat, 2002ko 11 katalogotik 21 katalogora igo da-eta hurrengo bi urteetan (batezbeste 3,5 katalogo museoko). Argitalpenen hizkuntzak kontuan hartuta, esan beharra dago museo guztiek ez dituztela euskarazko katalogoak argitaratu hiru urteotan.

Parte hartu duten museo guztiek euren fondoak eta euskal artisten fondoak dituzte. Hiru museok emandako datuak kontuan hartuta, fondoan batuketa 25.084 lanekoa denez, batezbestekoa 8.361 lanekoa da. Euskal artisten lanei dagokienez, zenbaki horiek ikaragarri jaisten dira, 1516 lan direlako guztira (bi museo emandako datuak). Modu berean, museo guztiek egiaztatu dute 2002tik 2004ra lanen bat eskuratu dutela. Era berean, guzti-guztiek baieztatzen dute euskal artisten lanak daudela eskuratutako lanen artean. Dena den, eskuratutako lanen batuketa jaitsi egin da aztertutako garaian zehar.

Eskuratutako lanen teknika artistikoei dagokienez, museoen %40k baino gehiagok lan piktorikoak eta eskulturak eskuratu dituzte. 2004. urtean, gainera, argazkilaritza ere nabarmendu beharra dago.

Hona hemen 2004an museoaren artean arte-lanak eskuratzeko gehien erabilitako formulak: erosketa, ematea, gordailua, dohaintza eta legatua. 2002an eta 2003an, museo batek ere ez zuen legaturik jaso. Artistak eurak eta bildumagileak dira museoaren lan-hornitzaile handienak. 3 museo emandako datuen arabera, Rafael Ruiz de Bardiren lanak eskuratu ziren gehien; eta ondoren, Jesus Mari Lazkanorenak eta Txomin Badiolarenak.

Gainerakoekin alderatuz, aurrekontu-arloko diferentzia handiak daude museoetako batean. 2 museoaren gastu arruntak handitu egin dira hiru urteotan zehar; eta beste bienak, ordea, jaitsi egin dira. Urte bakoitzeko gastuak 1.100.000 eurokoak dira gastu gutxien dituen museoan; eta 28.000.000 eurorainokoak, gastu gehien dituenen. Azken museo horren gastu arrunta hiru milioi euro baino gehixeago jaitsi zen 2002tik 2004ra. Lau museoetatik hiruk diru-sarrerak eta gastuak orekatu ahal izan dituzte hiru urteotan.

Gehien kontratatutako zerbitzuak, garbiketa (museoen %100), segurtasuna (%80), eta dokumentazioa, artapena eta aretoko zaintza (%60) dira.

Argitaratutako katalogoen kopuruak gora egin du erabat, 2002ko 11 katalogotik 21 katalogora igo da-eta hurrengo bi urteetan (batezbeste 3,5 katalogo museoko). Argitalpenen hizkuntzak kontuan hartuta, esan beharra dago museo guztiek ez dituztela euskarazko katalogoak argitaratu hiru urteotan

1.4. Ekoizpenerako eta sorkuntzarako eremuak⁴

Ekoizpenerako eta sorkuntzarako bost eremu daude: euretako lau, Bilbaon; eta bat, Donostian. Bi titularitate publikokoak dira; eta beste bi, irabazi-asmorik gabeko sektore pribatukoak.

Eremu guztiek web orria dute. Hala ere, web orri batek baino ez du eskaintzen instalazioetara bisita birtuala egiteko aukera.

Aztertutako hiru eremuk erakusketak egin dituzte eta guztiek garatu dituzte erakusketak euskal artistekin. Aztergai izan ditugun lau eremuek lanak ekoitzi dizkiete artistei, eta euskal artistak daude euren artean. Hona hemen eremu gehienek zabalkunderako erabilitako bideak: prentsa espezializatua, zenbait agenda kultural, kasuan kasuko web orriak eta posta elektronikoa.

Titularitate publikoko bi eremuek egoitzako artistak dituzte. Egoitzako euskal artisten kopurua ez da ezertxo ere aldatu aztertutako garaian zehar. Hori dela eta, 85 artista daude urteko, hau da, 42,5eko batezbestekoa eremuko eta urteko. Eremuok artistekin dituzten kontratu-harremanen arabera, eremuak lagatzen dizkiete eta urtebeteko bekak ematen dizkiete. Lau eremuetatik, hiruk emandako datuen arabera, bi nazioarteko azoketara joan ziren (ARCOra eta Fair Colognera).

Aurrekontuei dagokienez, alde handiak daude eremu publiko eta pribatuen artean. Gastu arruntak kontuan hartuta, 2003. urtean gastua zertxobait igo zen eremu guztietan. Dena den, 2004. urtean, jaitsi egiten da berriro, baina ez 2002ko gastuaren azpitik. Urte bakoitzeko gastuak 60.000 eurokoak dira gastu txikien dituen eremuan; eta 1.115.000 eurorainokoak, gastu handien dituen eremuan. 2004an, diru-sarrerak jaitsi egin dira lau eremuetako hirutan.

Kanpoan kontrataturiko zerbitzurik ohikoenak garbiketa eta segurtasuna dira.

2. EUSKAL ERAKUNDEEK SEKTOREAN IZANDAKO ESKU-HARTZEAREN BILAKAERA

Azterlaneko bigarren kapituluak arte plastiko eta ikusizko arteen esparruan izandako esku-hartze zuzena aztertzen du eta lau zati bereizitan egituratzen da, aztertutako erakunde bakoitzeko bana. Sektore horri dagokionez euskal erakundeek jarraitutako kultura-politikaren analisi deskribatzaile bat burutzen da, sortutako arau-arloko jarduera aztertuz.

4. Hiru euskal hiriburuetan dauden establezimendu publikoak eta pribatuak dira, beti ere euren jarduera nagusia artearen sorrera eta sustapena bultzatzea eta artistak nahiz euren sorkuntza suspertzea bada.

Ekoizpenerako eta sorkuntzarako bost eremu daude: euretako lau, Bilbaon; eta bat, Donostian. Bi titularitate publikokoak dira; eta beste bi, irabazi-asmorik gabeko sektore pribatukoak

2.1. Eusko Jaurlaritzaren arau-arloko jarduera

Azterketa hau, erakunde honek 1984. urtetik 2004. urtera arte arte plastiko eta ikusizko arteen esparruan izandako arau-arloko jarduerari buruzkoa da (diru-laguntzak, bekak, laguntzak, lehiaketak, sariak...). Lehenengo, azken hogeitun araudien bitartez sortutako esku hartzeko ildo nagusiak eta horien kopurua agertzen duten adierazle batzuk aurkezten dira. Jarraian, araudi horien deskribapena sakontzen da, elkarren segidako blokeen bidez, deialdietan planteatutako helburuei buruzko alderdiak, zuzkidura ekonomikoen bilakaera, begietsitako lengoia artistikoak eta esku-hartze ezberdinen bilakaeraren adierazgarri diren bestelako alderdiak aztertuz. Aipatutako blokeak honakoak dira:

- Arauen karakterizazioa
- Gure Arte sariak
- Bekak, laguntzak eta bidaia poltsak
- Babes espezifikoa sektore pribatuari

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren egitura organiko eta funtzionalaren bilakaerari (1980-2004) buruzko analisi bat burutzen da. Halaber, erakunde horrek sektorekoak diren elkarteetan izandako partaidetza ere aztertu da.

2.2. EAEko Foru aldundien arau-arloko jarduera

Kapitulu honen bigarren zatian, aipatutako hiru erakundeek arte plastiko eta ikusizko arteen esparruan sortutako arau-arloko jardueran sakontzen da (diru-laguntzak, bekak, laguntzak, lehiaketak, sariak...). Foru aldundien arabera egituratuta, araudi nagusien deskribapen bat egiten da, aurreko atalaren gai-egitura berarekin.

Arabako Foru Aldundia

Honek 1998tik 2004ra bitartean arte plastiko eta ikusizko arteen inguruan izandako arau-arloko jarduera aztertu da, urte horietan zehar esku-hartzeari dagozkion sei bloke identifikatuz:

- Kultura-enpresentzako diru-laguntzak
- Arte plastikoetan hobekuntza-bekak
- Artium Fundazioaren inguruan sortutako araudia
- Arte plastikoaren urteroko Amarica deialdia

Azterketa hau, erakunde honek 1984. urtetik 2004. urtera arte arte plastiko eta ikusizko arteen esparruan izandako arau-arloko jarduerari buruzkoa da eta azken hogeitun araudien bitartez sortutako esku hartzeko ildo nagusiak eta horien kopurua agertzen duten adierazle batzuk aurkezten dira. Jarraian, araudi horien deskribapena sakontzen da, elkarren segidako blokeen bidez, eta amaitzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren egitura organiko eta funtzionalaren bilakaerari buruzko analisi bat burutzen da

- Juan Jose Urraca Lehiaketa, Kirolari Aplikatutako Arteak
- Arabako Arte Ederren Museoa eta Artium Museoa herritarrei gerturatzeko bideratutako jarduerak garatzeko diru-laguntzak

Eragileen eta egitura organikoaren bilakaerari (1998-2004) buruzko analisi bat burutzen da.

Bizkaiko Foru Aldundia

Honek 1989tik 2004ra bitartean arte plastiko eta ikusizko arteen inguruan izandako arau-arloko jarduera aztertuta da. Kasu honetan honako arau-arloak deskribatzen dira:

- Ertibil Erakusketa Ibiltaria
- Bekak eta diru-laguntzak kultura-esparruan
- Udalaz gaindiko izaera duten arte plastiko erakusketa-programetarako diru-laguntzak
- Udalaz gaindiko proiektuetarako diru-laguntzak
- Udal izaerako kultura-jardueretarako diru-laguntzak

Kasu honetan ere eragileen eta egitura organikoaren bilakaerari (1985-2004) buruzko analisi bat burutzen da.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Azkenik, 1991. urtetik 2004. urtera bitartean arte plastiko eta ikusizko arteen esparruan izandako arau-arloko jarduera jorratzen da. Aztertutako araudi espezifikoak honakoekin lotuta dago:

- Kultura eta Euskararen Departamentuko bekak, laguntzak eta poltsak
- Artelekuren inguruko araudia (1990-2004)
- Koldo Mitxelenaren inguruko araudia (1996-2004)

Kapitulua amaitzeko, eragileen eta egitura organikoaren bilakaerari (1996-2004) buruzko analisi bat burutzen da.

3. GAI KRITIKOEN DIAGNOSTIKOA

Azterlanaren hirugarren kapituluaren burututako analisiaren emaitza gisa sektorerako esanguratsuak gertatu diren gaiak jasotzen dira eta horien gainean proposatu behar dira esku hartzeko ildoak. Jarraian, diagnostiko honen inguruan nabarmentzen diren alderdietako batzuk laburbiltzen dira:

Arte plastikoen eta ikusizko arteen inguruan hiru Foru aldundiak izan duten arau-arloko jardueraren azterketa sakona egiten da aldundi bakoitzeko eta eremu honetan ezarritako arau nagusien deskribapena aurkezten da

Sektorearen ikuspegi orokorra

- Sektoreak estandarizatu gabeko edukiak ekoizten ditu, eta euren hartzailleak ez dira ugariak. Hori dela eta, arte lanen prezioa garestia da. Gure inguruneko arte-merkatua txikia da, herrialdearen neurrietara egokituta dago. Aitzitik, Euskal Herrian ez da inoiz bildumarako ohiturarik egon eta erakundeek eurek ere ez dute zerga-politiken bidez sustatu. Arte plastikoen sektorea bizi-bizia da, irakiten dago etengabe eta onetsitako zeresan handia dauka euskal kultura-sisteman. Gure ingurunean dagoen babes estatuko beste eremu batzuetakoa baino handiagoa da. Oso sektore anitza da, bere bilakaera Administrazioarena baino azkarragoa da, eta erakundeei gainez egiten dieten kontzeptuak eta ideiak sortzen dira. Azken hogeitun urteotan, sektoreak hobera egin du funtsean. Heldutasunerako bidean dago, eta, oro har, inplikaturako eragileen aurreikuspenak onak dira etorkizunari begira.
- Hala ere, sektorea ez dago lar zehaztuta eta egituratuta. Hori dela eta, zeresan erlatiboa dauka euskal kultura-sisteman. Arlo publikoa kontuan hartuta, etorkizunerako aurreikuspenak ez dira hain onak, eskumenen eta aurrekontuen mugetara iristear dagoelako. Sektoreko eragile gehienek ustez, gaur egungo egoera etsigarria da erabat, gaur egungo konpromisoak ez duelako benetan hobera egin, museoek gaur egungo sarean, ekitaldi handietan eta etorkizuneko proiektuetan asko inbertitu den arren.
- Azterketan parte hartu dutenen ustez, Kulturaren Euskal Plana urrats handia da oso araututa ez dagoen sektore honentzat, bere egituraketarekin hasten eta kulturako industrien garapena zein sortzaile berriak sustatzen lagundu baitu. Plana egokitzat joko da ondoko ekintzak burutzeko aukera ematen badu:
 - Alde batetik, eragile publikoen zeregina zehazteko eta helburuak, ekintzak eta estrategiak koordinatzeko aukera ematen badu
 - Bestetik, sektorean inplikaturako eragileei partaidetza handiagoko kudeaketa garatzeko aukera ematen badie.
- Hala ere, parte hartzailerek adierazi dutenaren arabera, Kulturaren Euskal Planak ez dauka zehaztutako zuzkidura ekonomikorik, eta, bertan, ez da sektorerako ekimen berri berezirik zehaztu. Plana asmoen konpromisoa da funtsean, helburua zehazten duelako, baina ez duelako sektorerako ekintza zehatzegirik ezartzen.
- Internazionalizazioari dagokionez, kontuan hartu behar da artea unibertsala dela, eta globalizatuta dagoela eta artistek munduko arte-zentro handietara joateko beharra dutela, prestatzen eta heltzen jarraitzeko. Internazionalizatzeko eta nazioarteko bilbeetan txertatzeko prozesua egon badago, sortzaileei dagokienez, batez ere.

Arte plastikoen sektorea bizi-bizia da, irakiten dago etengabe eta onetsitako zeresan handia dauka euskal kultura-sisteman. Gure ingurunean dagoen babes estatuko beste eremu batzuetakoa baino handiagoa da. Oso sektore anitza da, bere bilakaera Administrazioarena baino azkarragoa da, eta erakundeei gainez egiten dieten kontzeptuak eta ideiak sortzen dira. Azken hogeitun urteotan, sektoreak hobera egin du funtsean

- Sektoreko parte-hartzaile guztiek jakin badakite nazioko eta nazioarteko sareetan egon behar dela. Kulturaren maila guztiak zentralizatzen ari direnez, Euskadin ez dago desertizazio kulturalerako prozesurik. Izan ere, kultura bera oso gune gutxitan pilatzen, zentralizatzen ari da, eta globalizazioa zentraltasun-ardatz horien inguruan egituratzen ari da (munduko hiriburu handiez ari gara). Artistak eta euskal artea nazioartean sustatzeko orduan, administrazioek oso jarduketa desberdinak garatzen dituzte.

Balio-katea

- Prestakuntza/ikerketari dagokionez, museoetako egitarau didaktikoak oso tresna egokiak dira, orokorrean, artea ikasleengana eta gizartearengana hurbiltzeko. Arte ederretako eta artearen historiako unibertsitate ikasketek ikasle-kopuru adierazgarria dute gure ingurunean. Hala ere, artea eta irakaspen artistikoak ez daude lar errotuta hezkuntzaren arloan.
- Kulturaren Euskal Planak hezkuntzaren eta kulturaren arteko lotura hartzen du kontuan honako hiru maila hauetan:
 - Profesionalen prestakuntza
 - Ikerketa
 - Esperientzian oinarrituta, artea eta kultura hezkuntza-arloan sartzeko prozesua. Gaur egun, ez da ezertxo ere egiten azken maila horretan.
- Arte plastiko eta ikusizko arteen sektorea sorkuntza/ekoizpenaren ikuspuntutik, oso sektore esanguratsua da, eta kezkak zein asmoak dituzten belaunaldi berriak eta sendotutako artista ospetsuak daude bertan. Sortzaileen euren jarduera eta garapen artistikoaren arabera bilakatu da sektorea. Kalitateko tresnak daudenez, sistemak erantzun eraginkorra ematen die artista hauen premiei (Arteleku, Bilboarte...). Arteetako azpiegiturak eta zerbitzuak handiak direnez, sorkuntza bultzatzeko eta ekoizpen artistikorako baldintzak hobetzeko erabil daitezke. Eusko Jaurlaritzak 2000. urtean emandako Aginduari esker, aurrerakuntza handia gertatu da artisten babesean.
- Azterketan parte hartu dutenek aipatu dituzten ahulezien artean, ekonomia eta espazio arloko baldintzatzaileek ikaragarri mugatzen dute sektorean profesional moduan jardun nahi duten artisten jarduera. Lanen erosketa-rekin lotura estua duten jarduerak burutzen dituzten sortzaile berriak gero eta gehiago dira lan-merkatuan, eta ekintza hori ez dute erakundeek ezin dute bete edo ez dute bete beharrik. Gaur egun, artistak artearen merkatutik kanpo daude, eta galeriak eurak dira bitartekariak.

Arte plastiko eta ikusizko arteen sektorea sorkuntza/ekoizpenaren ikuspuntutik, oso sektore esanguratsua da, eta kezkak zein asmoak dituzten belaunaldi berriak eta sendotutako artista ospetsuak daude bertan. Sortzaileen euren jarduera eta garapen artistikoaren arabera bilakatu da sektorea

- Arte eder museoen eta sorkuntza-munduaren arteko harremana ez da behar den modukoa. Administrazio publikoek sorkuntza sustatzeko abian jarritako politiken arteko koordinazioa oso eskasa denez, ahaleginak sakabanatuta daude erabat. Lehendik dauden sortzaileak babesteko tresnak eta jarduketak (bekak, erakusketa plataformetarako sariak...) baliabideen eskuragarritasunera mugatuta daude. Gaur egun, ez dago artistak profesionalizatzeko behar besteko baldintzarik. Erakunde publikoek hautemandakoaren arabera, sortzaile berriek laguntza publikoekiko menpekotasun handiegia dute. Artisten etorkizuna bermatzeko, eragileek (museoek, galeriek eta beste plataforma batzuek) artisten nazioarteko proiektzioa bultzatu behar dute.
- Kulturaren balio-katean, erakustaldia da euskal erakundeek gehien babesten duten fasea, eta, horretarako, zabalkunderako ekipamenduetan inbertitzen dute. Hain zuzen ere, politika kultural nabariena da gizartearentzat.
- Bilboarte, Arteleku edo ekoizpenerako eta sorkuntzarako antzeko eremuetan, euskal artista gazteen erakusketak egin ohi dituzte. Zabalkunde artistikorako eskaintza nahikoa zabala da. Museoen sistemak marka sortzen duenez, euskal artistak nazioartean sustatzeko erabil daiteke. Sektorearen beraren iritzi, oso egokia izan da museoen sistema nazionala eratzea.
- Galeriak oinarrizko eragileak dira, artistak kanpoan sustatzeko orduan. Ostera, babesik gabeko artistak nekez iritsi daitezke atzerriko merkatuetara. Bilboarten, Artelekun edo antzeko eremuetan egindako erakusketek ez dute behar edo nahi besteko eraginik gizartean. Arte plastikoen eta ikusizko arteen zabalkundearen espezializatutako erakusketa-areto gutxi daude. Bestalde, gizarte-eragin handia duten museoek, Guggenheim Museoak esaterako, aldi baterako erakusketa gutxi egiten dituzte bertako sortzaileekin.
- Bildumagintza publikoa museo publikoen bitartez garatzen da, baina Foru-aldundiek museorik ez dutenez, ez dago euren inguruko politikak egituratzerik.
- Kontsumoari dagokionez, orokorrean gaur egungo gizartea sentsibilizatuago dagoela esan daiteke, eta sektorearen ahalmena onetsi eta balioetsi egiten du. Horren ondorioz, harkorragea da. Gizartea sentsibilizatuago badago ere, kontsumoak ez du gora egin, biztanleak sentsibilizatzeko eta merkatua sortzeko oinarrizko jarduketa gutxi daudelako. Arte plastikoak ez daude Euskadiko gizarte-bizimoduan sustraituta, eta ez dago artea kontsumitzeko ohiturarik. Gaur egun, gizarteak ez du kontsumo artistikoko jarduerarik eskatzen tokian tokiko egitarau kulturaletan, eta artea ez da benetan kontsumitzen.
- Artista gehienek gizartearentzat sortu nahi dute, euren artea gizartearentzat dela diote. Argi eta garbi dago, ordea, balio berriaren (arte kontzeptualaren) eta artea kontsumitzen duten hiritarren arteko urruntasuna handia dela.

Arte eder museoen eta sorkuntza-munduaren arteko harremana ez da behar den modukoa. Administrazio publikoek sorkuntza sustatzeko abian jarritako politiken arteko koordinazioa oso eskasa denez, ahaleginak sakabanatuta daude erabat

Euskal erakundeen esku-hartzea

- Esku hartzeko ildo orokorreari dagokionez, EAEko administrazioak jakin badaki arazo kulturek eragina eta oihartzuna dutela. Era berean, kultura-politikaren tradizioa eta biztanleko gastu publiko kulturala Europakoekin parean daude. Erakundeei begira, nerabezaroan gaude. Aspaldidanik garatzen ari diren partaidetzek sektorearen egituraketa bultzatuko dute, eta industria kultural moduan jardungo du sektoreak. Udalen zeregina subsidiarioa da oinarrian, ekimen pribatuak jorratzen ez dituen eremuak estaltzen saiatzen da-eta. Esaterako lehen mailako ekoizpena eta erakusketa.
- Euskal erakundeek azpiegitura handiak sustatu dituzte aldebakartasunez, oro har eta arte plastikoaren sektorean benetan garatutako edukien, aplikazioen eta erabileren kaltetan. Administrazioek ez dute sektorerako plangintzapeko arau-esparru berezirik sortu. Arau-mailan, joerak sortu badira ere (atzerrirako irteerak, azoketako agerpena, sariak...), ez da politika berezirik sortu. Horren ondorioz, egoera arriskutsua da oso, tresna (arautegi) horietara moldatu gaitezkeelako eta epe laburrean zaharkituta egon daitezkeelako sektorearen aurrerakuntzei begira. Ez dago lege-gordailua eta jabetza intelektualarekin zerikusia duen guztia arautzeko eskumenik, politika kulturala egituratzean oso garrantzitsua bada ere. Arteak museoaren bidez zabaltzeko politiken eta artearen sorruntzarako zein zabalkunderako babesaren arteko desoreka oso handia da. Kulturaren Euskal Plana alde batera utzita, ez dago egituratutako politika kulturalik.
- Aurrekontu-zuzkidurari dagokionez, arte plastikoek zuzkidura ekonomiko handieneko erakunde babesa jaso dute azken urteotan kulturaren sektorean. Hori dela eta, azken hogeitaz urteotako irakurketa ona da, kultura birlakatu egin da eta aurrekontu-baliabideek hobera egin dute. Europa mailan, kulturako eta arte plastikoetako gastu handiena duten lurraldeen artean gaude.
- Ahultasun gisa adierazi behar da, babes handia jaso duten Guggenheim Museoa eta beste museo edo erakusketa-areto batzuk kontuan hartu gabe, baliabideak oso eskasak direla gainerako faseetan. Desorekak daude, proportzioan udal batzuek larregizko inbertsioak egiten dituztelako kulturaren eta arte plastikoetan.
- Aurrekontu-zuzkidurari buruz erakundeek egiten duten irakurketa da nahikoa dela dagoen eskariarentzat; batzuetan, ez dira baliabide guztiak banatzen (esate baterako, ekoizpenerako laguntzak). Aldiz, beste batzuentzat zalantzan jartzeko modukoa da Eusko Jaurlaritzaren partaidetzapeko hiru museoetako aurrekontu-zuzkidura ikeragarriaren bidez emandako bultzada berria, bilbadura artistikoarekin barik, turismoarekin dutelako zerikusi

Euskal erakundeek azpiegitura handiak sustatu dituzte aldebakartasunez, oro har eta arte plastikoaren sektorean benetan garatutako edukien, aplikazioen eta erabileren kaltetan

handiagoa. Aurrekontua ez dago orekatuta Eusko Jaurlaritzan: galeriak (15 milioi), museoak (70 milioi) eta erakusketa-egitarauak (30 milioi).

- Arabako Foru Aldundiaren zuzkidura ez da nahikoa, bere banaketa kontuan hartuta. Horiek horrela, zenbaki orokorrak nahikoak badira ere, esku hartzeko faseen arabera banatuz gero, ez dira nahikoak. 80ko hamarkadatik, Artelekuren aurrekontua bere horretan utzita dago edukiei dagokienez. Museoez bildutako diruaren % 70 Eusko Jaurlaritzan geratzen da.
- Plangintzari eta koordinazioari dagokienez, Bilboartek edo Artelekuk harreman onak dituzte sektorearekin, formalizatu gabeko komunikazio-bideen bitartez.
- Estrategia behar den moduan zehaztuta ez dagoenez, kaltegarria da kultura gutxituarentzat eta balio inmaterialen inguruan birbaloratuko den sektore oparoarentzat. Ez dago erakundeen arteko koordinaziorik, politikak lurraldeen arabera bereizten dira eta eskumenak zehaztu barik daude.
- Eskumenei dagokienez, tratu pertsonalen bidezko ahozko eskumen-mugaketa dago indarrean, eta ez du arauzko izaerarik eta alderdi kritikoak dira sektorearentzat. Udalek eta Foru-aldundiek honako hauek dituzte helburu nagusi: prestakuntza/ikerketa, sorkuntza eta zabalkundea. Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzaren jarduerak zabalkundea du helburu nagusi, museoen bitartez. Sistema nazionalak (horra hor museoen sistema nazionala) formula egokiak dira, fase eta sektore guztiei erantzuteko orduan.
- Euskal Ondare Kulturalaren Legea ez dator bat Lurralde Historikoen Legearekin, eskumenei dagokienez. Hori dela eta, administrazio-mailen arteko eskumenak zehaztu gabe daude. Hiru Foru-aldundien jarduketa-eremuak desberdinak badira ere, eskumen berberak dituzte.
- Diru-laguntza, laguntza eta bekei dagokienez, apurka-apurka, beken, laguntzen eta dirulaguntzen zuzkidura handitu egin da, azpiegitura handietan egindako gastua garrantzitsua izan arren. Ekintza egokiak ari dira garatzen, enpresa-sarea sektorean bertan inplikatu dadin. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak lehentasunezko jarduerak ezarri ditu, eta, horren ondorioz, zergak arintzeko tratamendu abantailatsua eskaintzen du dirutako edo gauzatako inbertsioan, bilduma publikoetako eta museoetako arte-lanak erosteko.
- Orain arte, erakundeek dirulaguntzen, beken edo laguntzen bitartez esku hartu dute sektorean eta bultzatu dute sektorea. Horiek horrela, euskal administrazioak jarduera artistikoaren patronatua dira fase guztietan, eta ez da ohitura egokia. Ekimen pribatua oso-oso eskasa da sektore honetan.

Orain arte, erakundeek dirulaguntzen, beken edo laguntzen bitartez esku hartu dute sektorean eta bultzatu dute sektorea. Horiek horrela, euskal administrazioak jarduera artistikoaren patronatua dira fase guztietan, eta ez da ohitura egokia. Ekimen pribatua oso-oso eskasa da sektore honetan

- Laguntzak esleitzeko orduan, ez dago adostutako irizpiderik. Guztiek guztiei sistemaren ondorioz, pertsona eta proiektu berberei ematen zaizkie dirulaguntzak. Hori dela eta, baliabideak zarrasteldu egiten dira. Batzuetan, arauen arloko aurrerapenak sortzaileen ekintza mugatzen dute. Esate baterako, sorkuntzarako bekek gehiegi kontrolatzen dute artisten zeregina. Proiektu plastiko eta ikusizko proiektu gehiegi daudenez, merkataritza-sareak eta/edo erakunde-sareak ez daukate hainbeste lan xurgatzeko gaitasunik. Baliabide asko erabili dira lanak eskuratzeko (irizpidea eskasa izan da), eta laguntza gutxi eman da proiektu berriak bultzatzeko, sortzeko.
- Urte gutxitan, Fundazioen eta Mezenasgoaren Legea zaharkituta geratu denez, inbertsioak kontrolatu eta berriro bideratu behar dira. Gaur egun, Euskadiko enpresa gutxi bat egiten dute mezenasgoaren legearekin. Hori dela eta, euskal finantzasistema pribatuaren edo erdi-publikoaren kultura inplikazioa oso urria da.
- Azkenik, galeriak kanporatzeko babesak, zabalkundea Eusko Jaurlaritzaren zeregina zela zirudien arren, Bizkaiko Foru Aldundiak ere badihardu zeregin horretan.
- Hasiera batean, merkatuaren eta artisten arteko bitartekaria izatea da galerien zeregin nagusia; eta ondoren, museoetako erakusketak. Galeriei lagunduz gero, status quoari eusten zaio, baina laguntzarik gabe ere bere horretan iraun lezake.
- Ez dago artearen bezeroei eta erosleei laguntzeko zerga politikarik, zergak arintzeko ekimenen bidez, batez ere. Epe ertainari begira, ezinbestekoa da erakunde publikoek euren eskumenekoa ez den zeregina bertan behera uztea, ez dutelako artearen erosketak eta babesak zertan bultzaturik.

4. ETORKIZUNEAN ESKU HARTZEKO ILDOAK

Hiru proposamen-mailaren inguruan egituratzen dira eta berorien planteamendua orokorrenetik espezifikoenera doa. Hausnarketa zuzentzen duten eta ekarpenak hurrengo mailetan zehaztea iragartzen duten hiru ardatz estrategiko formulatu dira. Ardatz estrategiko bakoitzari, ardatz bakoitzarekin lotutako helburu bat edo batzuk dagozkio ekintza-ildo batzuetan zehazten direnak. Jarraian hausnarketa estrategikoaren laburpen bat eskaintzen da:

Ardatz estrategikoak eta helburuak:

1. **Ardatz estrategikoa.** Arte plastikoaren sektorean euskal erakundearen esku-hartzea optimizatzen duen eskumen-egitura finkatzea
 - Sektorea maila guztietan bultzatzeko beharrezkoa den eskumen-egitura zehaztu
 - Erakundearen ekintza planifikatu

Merkatuaren eta artisten arteko bitartekaria izatea da galerien zeregin nagusia; eta ondoren, museoetako erakusketak. Galeriei lagunduz gero, status quoari eusten zaio, baina laguntzarik gabe ere bere horretan iraun lezake

- Erakundeen eta eragile nagusien arteko koordinazioa eta elkarrizketa bultzatuko dituen komunikazio-politika bat diseinatu

Horretarako 18 jarduera-ildo proposatzen dira.

2. Ardatz estrategikoa. Arteen balio-katearen fase guztiak aintzat hartzen dituen esku-hartze hausnartu eta planifikatua sortzea

- Arte plastikoen sozializazioa bultzatuko duten jarduerak sortu
- Diru-laguntzen, beken eta laguntzen oinarriak eta esleipena diseinatzeko baterako irizpideak ezarri
- Bildumazaletasun pribatua sustatu

Kasu honetan, planteatutako ildoak 15 dira.

3. Ardatz estrategikoa. Euskal artista eta sortzaileek erakundeen babesa emateko politika koordinatua diseinatzea

- Artisten profesionalizazioa lortzeko beharrezko baldintzak sortu
- Euskal artisten internazionalizazioa babestu

Proposatzen diren jarduera-ildoak 17 dira.

Ardatz estrategikoak eta helburuak:

- Arte plastikoen sektorean euskal erakundeen esku-hartzea optimizatzen duen eskumen-egitura finkatzea
- Arteen balio-katearen fase guztiak aintzat hartzen dituen esku-hartze hausnartu eta planifikatua sortzea
- Euskal artista eta sortzaileek erakundeen babesa emateko politika koordinatua diseinatzea



kulturabehatokia@ej-gv.es